




HAZPARNE

# Bidegaraia



Distantzia <b>10,8 km</b>	Desnibela <b>550 m</b>	Iraupena <b>3h30</b>	Tipologia <b>Itzulia</b>	Zedarrak <b>PR seinaleak ibilbide osoan</b>
------------------------------	---------------------------	-------------------------	-----------------------------	--

Hazparne zentroko gainaldean (D10 errepidea Kanbotik edo A64 autobideko 3. irteera eta D21 errepidea), Santa Terexa eskolaren izkinan, segi eskuin Zelaiko bidea; 3 km-tan igaten da (Zalduko bizkondeen karrika). Zelai auzoko bigarren pilota plazan, itzul eskuin "Iheslarien oroitarria" seinaleari jarraikiz. Aparkalekua 800 m urrunago, oroitarriaren heineko Y formako bidegurutzean (utzi autoa bide bazterrean, zirkulazioa tratatu gabe).

GPS datuak : **UTM : 635777 - 4802417 Lat/Long : 43.36232/-1.32433**

**H**azparneko Zelai auzotik abiatuz, itzulia egiten duen ibilaldi horretan Urtsura iganan zara. Eskualdeko ibilaldi adierazgarrienetakoa da: ikuspegi ikusgarria bada mendien eta Atlantikoko itsasbazterren gainera, eta ondare natural, historiko eta gizatiar ohargarria ere.



## 1. ZATIA > Oroitarritik Urtsubehereko goi-ikuspegia

UTM : 635777 - 4802417

Iheslarien oroitarrian (288 m), hartu ezkerreko bidea, laster xendra belartsu bilakatuko dena. Lehen bidegurutzean hartu ezker bide on batera, goratasunean iragaten da gero, eta berriz jausten errepide batera, eskuinetik hartu beharko dena. Kanadar pasabidearen ondotik, hartu bi aldiz eskuineko errepidea. Pitxar etxaldeko bihurgune zerratuan, utzi mundruna eta segi zuzen bide harriztatutik. Egon beti bide zabal horretan, ikuspegi ederra ukanen duzu eskal itsasbazterren gainean. Ibarxka bat zeharkatzen du (iturria) eta kasko borobildu batera heltzen. Ez joan eskuin doan xendratik eta hel zaitetz bordara.

## 2. ZATIA > Urtsuko azken igoera

UTM : 634439 - 4801299

Urtsubehere borda (438 m) Y formako bidegurutzean kokatua da: igan ezker Urtsura buruz. Bi bihurgune zerratu laburren ondotik, bidea ibarxka batean gora doa, borda baten gainaldetik, eta laugune belartsu batera heltzen ezkerrean (ikuspegia jadanik biziki zabala da). Zeharka ezazu laugunea eskuin antenara buruz. Antenaren ondotik igan segidan eskuin, patarra zut eta zuzenetik. Arroka zenbait iragan ondoan, patarra ezitzen da, eta belarrean zuzen segituz, Urtsu kaskora helduko zara.



## 3. ZATIA > Makeara jaustea

UTM : 635033 - 4800327.

Urtsu kaskoko ikuspegiak gozatu ondoan (681 m), Baiguraren parean, jautsi 100 m ezker (belarrean) eta eskuinean bide baten hastapena atzemanen duzu. Kaskoaren hego isurkiko bihurgunearen ondotik, bidea lepo belartsura heltzen da ekialdean, eta urruntzen kaskoaren eskuin isurkian gaindi jausteko, Makeako gainaldean. Oteen artean xendra batek hartzen du segida. Ondotik itzul eskuin bide zabalagoan, haritzondo oihanari buruz, eta jauts ezker arbolan bazterretik. Bi belartegiren bidegurutzean, zoaz ezker (hets ezazu xeila pasatu ondoan).

## 4. ZATIA > Makearen eta Lekorneren zeharkatzea

UTM : 636311 - 4799939

Atera betoiz estali bidera (365 m) Makeako gainetan (Uharzakia): igan 30 m-tan ezker eta itzul segidan eskuin bi belartegiren arteko laugunetik pasatzeko. Bigarren belartegiaren ondotik igan 20 m-tan ezker betoiz estali patarrean, eta hauta eskuineko bidexka. Laster jausten da hesien artetik, eta oihanttoak eta pentzeak zeharkatzen. Gurutze formako bidegurutzera helduko zara Lekornerko gainetan (291 m), segi zuzen lurbidean. Ez kasu egin eskuineko bidexkari, ez eta ezkerrekoari gero, eta ur-bilketara helduko zara: Y formako ondoko bidegurutzean, hauta eskuinean jausten den bidea. Beherean (T formako bidegurutzera), segi ezkerreko bidexkatik errepideraino.

## 5. ZATIA > Zelaira itzultzea Napoleon bidetik

UTM : 637353 - 4801071

D152 errepideko bihurgunetik hurbil iragan zaitetz eta hartu lehen bidea ezker, haritzondo ederren azpian. Oihanetik ateratzean, bihurgune baten ondotik, lehen bide bat zeharka ezazu eta segi bigarrena eskuin. Errepide baten puntaraino heltzen da: segi ezker bide onetik, kanadar pasabideaz haratago (Betirigaztenean etxaldea). Segi ibiltzen bide zabal horretan, Napoleon deitua. Goratasunean den bidegurutzean (305 m), borda bati hurbil, egon pareko bide zabalean. Iragan zinen lehenbiziko kanadar pasabidera eramane zaitu. Pareko errepidetik, eta gero ezkerreko lehen xendratik, iheslarien oroitarriko aparkalekura helduko zara.

### INTERESGUNEAK

#### ❖ Iheslarien oroitarria

Oroitarria 1998an eraiki zen, mugalarien eta iheslarien oroitzapenetan, Bigarren Mundu Gerlan Espainiara buruz joan baitziren aleman armadak hertsaturik. Alabaina, sare handia osatu zen Hazparne inguruan, erresistenteak gordeak laguntzeko mendian gaindi. UTM : 635777 - 4802417

#### ❖ Kuku lore purpurak (1,1 km)

Kuku lore purpura (digitalis purpurea) biziki landare ederra da, izena latinetik datorriko, digitus, lorea eri formakoa baitu. Loreak zurtoinean zabaltzen dira, beheartetik goiti. Kasu hunki gabe, lorea pozoitsua da eta bihotzari, nerbio-sistemari eta digestio-sistemari kalte egin diezaike. UTM : 635365 - 4801735

#### ❖ Urtsuko ikuspegia (3,8 km)

Zerua argi delarik, Urtsuk eskaintzen duen ikuspegia espantagarria da Pirinio Garaietatik Landesetaraino. Midi de Bigorre, Gouretteko Pic de Ger, Midi d'Ossau, Auñamendi. Hurbilago, Baigura, Iparla eta Mondarrain, Larrun, eta itsasbazterra ere ageri da Hendaiaetik Capbretoneraino. UTM : 635033 - 4800327

#### ❖ Napoleon bidea (8,7 km)

Napoleon bidea Gailurretako bidea ere deitua da; komunikazio estrategikorako bidea zen Baiona eta Donapaleu artean; Napoleon I.aren armada handik iragan zen Iberiar Penintsulako Gerla denboran (1808-1814). Harri galtzada oraino ikus daiteke. UTM : 636553 - 4801263

### ARRETAZ IBILTZEKO LEKUAK

- Zaunkaka eta atseginak ez diren txakurrak Mehaka etxaldea zeharkatzerakoan (Makea) UTM : 636435 - 4799980

- Artzain eremua: hesiak hets, abereak ez beldurtu, xakurra loturik atxik, abere taldeetarik aski urrun egon

### EKIPAMENDUAK ETA ZERBITZUAK

2 km: Edateko ura UTM : 634745 - 4801289

7,7 km: Lekorne, piknika mahaiaik D152 errepide bazterrean UTM : 637356 - 4801086

# Ibilbideen erabilbidea

## ZAILTASUN MAILEN ADIERAZLEAK

Oinezkoen mendi ibilbideak zailtasunaren arabera sailkatuak dira zirkuitu bakoitzaren fitxa praktikoan.

Gisa horretan, Oinezko Ibilaldien Frantziako Federazioaren gomendioak jarraitzen ditugu.

**Oso erraza:** 2 oren baino guttiagoko ibilaldia.

Familian egiteko arras egokia, bide ongi markatuetan.

**Erraza:** 3 oren baino guttiagoko ibilaldia.

Familian egin daiteke. Bidexka batzuetan pasagune zailxeagoetan pasatuz.

**Ertaina:** 4 oren baino guttiagoko ibilaldia. Ibiltzeko ohitura duten ibiltarientzat. Batzutan kirol mailako lekuetan edo desnibela duten maldetan.

**Zaila:** 4 oren baino gehiagoko ibilaldia. Ohitura duten ibiltari

kirolarientzat. Ibilbidea luzea edota zaila da (desnibelatua, pasagune korapilatsuak).

## MENDI BIZIKLETAZKO IBILALDIAK

**Oso erraza:** bide zabala eta gurpiletako egokia; 300 m baino guttiagoko desnibela.

**Erraza:** gurpiletako nahiko egokia den bidexka; 300m baino guttiagoko desnibela.

**Ertaina:** bidexka teknikoak, 800 m baino guttiagoko desnibela.

**Zaila:** bidexka oso zaila, 300 eta 800 m arteko desnibela.

## DESNIBELA

Fitxetan agertzen den desnibela, goera guzieren gehiketa da.

## IBILALDIAREN IRAUPENA

Zirkuitu bakoitzarentzat emana den iraupena gutxi gorabeherakoa da. Kontuan hartzen ditu ibilbi-dearen luzetasuna, desnibela

eta izan litezkeen zailtasunak. Ibilaldi denbora geldialdirik gabe kalkulatu da.

## PR® LABELIZATUAK DIREN IBILBIDEAK

Label horren bitartez, Oinezko Ibilaldien Frantziako Federazioak onesten du oinezko ibilbide andana bat, kalitate irizpideen arabera. Hautua egiten da, plazer irizpideen, irizpide teknikoaren, turismo eta ingurumen irizpideen arabera (informazio gehiagorako: [www.ffrandonnee.fr](http://www.ffrandonnee.fr))

## GPS DATUAK

Abiapuntuaren datua, latitude/longitudetan ematen da, zure ibilgailuaren GPSan sar dezazun. Gainerako datuak (ibilbi-dearen geldiguneak) UTM datuetan emanak dira. Hona erreferentziatzeko formatua: WGS 84 - UTM 30T

## ZEDARRIZTATZE ITUNA

Hemen aurkezten dizkizugun bidexkak oinezkoen ibilbideak dira (PR®) eta horiz markatuak dira. Halarik ere, bide zati batzuk ibilbide luzeekin (GR) batera litezke; eta kasu horietan, marka zuri-gorri jarraitu beharko zaizkie. Ibilbide fitxetan zehaztuko zaizu hori.

	PR TOKIKO BIDEXKA	GRP® TOKIKO IBILBIDE LUZEA	GR® IBILBIDE LUZEA	VTT BIDEXKA
Norabide ona	—	—	—	▲
Itzul ezker	↵	↵	↵	◀
Itzul eskuin	↶	↶	↶	▶
Norabide okerra	✗	✗	✗	✗

# Jokamolde egokiak mendi ibilaldietan

Ipar Euskal Herriko bidexketan ibili nahi bada, natura errespetatzen duen jokamoldea izan behar da, baina baita lurralde hori biziarazten duten emazte eta gizonak errespetatzen dituen jokamoldea ere. Horretarako, garrantzitsua da arau batzuk errespetatzea.

## Abiatu aitzin, presta zaitetz

- Ez zaitetzela abia beharrezkoa den materialik gabe (mapa, ura, jantzi egokiak, etab.).
- Ez zaitetzela bakarrik abia edo, hala eginez gero, hurbileko bati edo herriko etxeari jakitera emaiozu (zenbait lekutan telefono sarerik ez da eta ezin atzeman bilaka zaitetzke).
- Erreketako ura ez ezazula edan eta ez zaitetzela honetan baina.
- Eguraldiari buruz informa zaitetz, erabat alda daiteke. Jakinean izan zaitetz garai hauek: lur-erretze, ihizi, oihan-lanetako eta abar.

## Natura zain ezazu

- Zakua har ezazu zure hondakinak eramateko.
- Abereak urrunetik eta isilik beha itzazu.
- Basalorerik, baiarik edota onddorik ez ezazula bil baimenik gabe.
- Lekuan emana den seinaletika errespetatu ezazu eta zaude bidexka zedarriztuetan.

## Laborantza eta artzaintza aktibitateak errespetatu itzazu

- Autoan ibil zaitetz emeki abere taldeetatik hurbiltzean.
- Autoa aparka ezazu horretarako antolatutako diren lekuetan, zirkulazioa ez trabatzeko
- Ez zaitetzela ibiltzera joan zure zakurrarekin, bestela, loturik atxik ezazu.
- Xeilak hets itzazu, handik pasa ondoan.
- Ibilbideen gaindi dauden jabego pribatuak errespetatu itzazu.
- Libre diren animalengandik urrun egon zaitetz eta ez itzazula bazka.
- Ez ezazula surik eta barbakoarik pitz.
- Kanpa ezazu baimenduak diren guneeetan bakarrik.

## Zure hondakinaren kudeaketa

Zure ibilaldietan, hondakinak zure bizkar-zakuan atxiki itzazu. Etxerat heltzerakoan, hondakinak bereiz itzazu eta bigarren bizi bat ukan dezakete!

## ZENBAKI BALIAGARRIAK

- Météo France:  
08 99 71 02 64 edo 32 50  
edo [www.meteofrance.fr](http://www.meteofrance.fr)

- Sokorriak: Larrialdietarako zenbakiak: 112 - SAMU 15 - SUHILTZAILEAK 18



## ZURE IRITZIA GURE BIDEXKEI BURUZ

Proposatzen dizkizugun ibilbideak arreta handiz landu ditugu. Zure irudipenak eta oharrak gure bidexken egoerari buruz interesatzen gaituzte, eta bidexkak egoera onean atxikitzeko aukera ematen digute. Gonbidatzen zaitugu edozein arazo edo ohar baliagarriak jakinaraztera: [sentinelles.sportdenature.gouv.fr](mailto:sentinelles.sportdenature.gouv.fr)

## HELBIDE BALIAGARRIAK

Euskal Elkargoko Turismo Bulegoa: Turismoko harrera bulegoak:

- AHURTI : merkatuko plaza  
+33(0)5 59 56 24 65
- BIDAXUNE : pilota plaza  
+33(0)5 59 56 03 49
- HAZPARNE : Donibane plaza  
+33(0)5 59 29 62 02
- BASTIDA : Pilota plaza  
+33(0)5 59 56 03 49

## PROFESIONALAK

Brebetadun profesional eta animatzaile anitzek laguntzen zaituzte ezagutuak diren bidexketatik kanpo. Haien zerbitzuetaz gozatzeko, harremanetan jar zaitetz Euskal Elkargoko Turismo Bulegoaren turismoko harrerako bulegoarekin.